



irailak
25

Eusko Legebiltzarrerako
HAUTESKUNDEAK

etakitto.eus



pdf-a



pdf-a

ELKARTEA

PROIEKTUAK

BERBETAN

ONGIETORRI BERBETAN

EUSKARA ZERBITZUAK

Albisteak

Mediateka

Zerbitzuak

Komunitatea

Agenda

Bilatu ...

Bilatu

Sagardo Egunaren aurkezpena egin dute

0 Berriak, Jaiak

21
IRA
O
12:50



Urriaren 1ean 23. edizioa beteko duen Sagardo Eguna aurkeztu dute gaur ...eta kitto! Euskara Elkartearen Maider Aranberri eta Anartz Mitxelenak. Urteroko martxan, aurten ere urriko lehen zapatuan ospatuko da, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta, egun osoan Untzagan: goizez 12.00etatik 14.30etara eta arratsaldeaz 19.00etatik hasi eta sagardo guztia amaitu arte. Azken urteotan bezala, [Gorenak Sagardoak](#) osatzen duten 13 sagardotegietako (Alorrene, Altzueta, Barkaiztegi, Begiristain, Egi-luze, Gartziategi, Gaztañaga, Gurutzeta, Isastegi, Olaizola, Sarasola eta Zapiain) sagardoa dastatzeko aukera izango da egun osoan. Aurten plaza bakarra, udaletxekoa erabiliko da. Goizez, umeendako ohiko jokoekin batera, Untzagan bertan ipiniko den tolaretik irtengo den mustioa dastatzeko aukera izango da. Horrekin batera, Baztan inguruan sagardogileek erabiltzen zuten tresna, kirikoketa bertatik bertara nola erabiltzen den erakutsiko dute. Hori guztia txalapartariak eta Marisol Arrillagaren soinu-joleek girotuta. Eta egunean bertan lauzpabost sagar moeta dastatzeko aukera emango diote jendeari.

Sagardo Egunean moeta biko tiketak ipiniko dituzte salgai eguerdiko 12.00etatik aurrera, udaletxe parean izango den salmenta puntuan. Tiket nagusiak 6 euro balioko du eta urteroko moduan horren trukean edalontzia, zapia, pintxoa eta txotx-a izango dira. Eta bakarrik pintxoa nahi duenak (txorizoa eta gazta menbriloarekin) 1'5 eurotan horretarako tiketa erosteko aukera izango du. Antolatzaileen berbetan, "egun horretan 2.340 sagardo botila, 200 kilo txorizo eta 15 kilo gazta banatuko ditugu. Horrelako eguna antolatzea posible egiten duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, bai laguntzera etortzen den 60 bat lagunekin lantaldeari baita udalari, Gorenak elkarteari eta horrelako jaia antolatzea posible egiten duten beste guztiei ere".



Agenda

IRA 23 ol. 2016	all-day Legarreko jaiak @ Legarre
	6:30 pm Erakusketa: "BIHARRA, arimakoa... @ Portalean
	8:30 pm Antzerkia: Caperucita Feroz (... @ Coliseo Antzokian
IRA 24 lr. 2016	all-day Legarreko Jaiak @ Legarre
	12:00 pm Tailerra: "Propiedad intelectu... @ Biharrin (Ubitxa)
	6:00 pm Umeendako zinea: "Angry Birds" @ El Corte Inglés-ea (ekitaldi aretoa)
	6:30 pm Erakusketa: "BIHARRA, arimakoa... @ Portalean
IRA 25 lg. 2016	6:30 pm Erakusketa: "BIHARRA, arimakoa... @ Portalean
IRA 27 ar. 2016	5:30 pm Kidam magoaren ikuskizuna
	6:30 pm Erakusketa: "BIHARRA, arimakoa... @ Portalean

IRAZABAL
clínica dental



Astalehenetik
oslegunera:
10-14 / 16-20h
Ostiralean:
10-14 / 15-19h

IRAZABAL HORTZ-KLINIKA

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

Komunitatea

Farmaziak

ASTELEHENA 19
Elorza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 20
Lekunberri (Isasi, 31)
EGUAZTENA 21
Lafuente (Sostoatarren, 10)
EGUNA 22
Elorza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 23
Iraundegi (Calbeton, 19)
ZAPATUA 24
Mendinueta (Urkizu, 6)



Print Email Partatu 58 Tweet 0

[Sagardo Eguna aurkeztu dute](#)
2015-09-21
In "Jaiak"

[#SagardoEguna 12.00etako txotxarekin abiatuko da](#)
2015-10-02
In "Jaiak"

[#SagardoEguna aurkeztu dute](#)
2014-09-17
In "Jalak"

[#sagardoegun](#) [#gorenak](#) [#sagardo](#)

DOMEKA 25
Castaño (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ BETI
Iraundegi (Calbeton, 19)
URTE OSOAN (09:00-22:00)
Castaño (J. Etxeberria, 7)

ost 23

lar 24

iga 25

© AEMET



[etakitto.eus](#) / ...eta kitto! Euskara Elkartea
Urkizu pasealekua 11. 20600 Eibar (Gipuzkoa)
[943 20 67 76](#) / [943 20 09 18](#)
e-posta: elkartea@etakitto.eus

Babesleak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Webgune honek cookieak erabiltzen ditu, propioak eta beste batzurenak, pertsonalizazioak eta azterketak, gure zerbitzuak hobetu eta webgunean nabigazioaren informazio estatistikoa biltzeko. Cookieen politika.

ONARTU

Gehiago irakurri